

noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

Astigarragan 'Sagar Uzta' bilduko da igandea arte

Aurten bi berrikuntza daude: 'Sagar motak ezagutuz' eta Sagardobide Erronka

Aitziber Muga - Jueves, 25 de Septiembre de 2014 - Actualizado a las 06:11h



Astigarraga - Astigarragako Sagar Uzta jaiak hamalagarren edizioa beteko du aurten, eta urteroko moduan, azarora bitartean luzatzen diren tolaretako lanen hasiera ospatuko du. Jarduerak sagarraren eta sagardoaren kultural oinarrituta egongo dira eta gaur bertan hasi eta igandea arte luzatuko dira.

Izan ere, gaur 19.00etatik 21.00etara, pintxo-potea egongo da eta herriko tabernetan sagarren eratorriein egindako pintxoak emango dira.

Bihar 19.00etan Euskal Herriko sagarren kata gidatua egingo da Astigarragako Roxario jatetxean.

Bestalde, larunbaterako berrikun-tza bat prestatu da: *Sagar motak ezagutuz*. Ekintza honetan, 9.30etik aurrera, Santiagomendiko Sagardo Bidean zehar mendibuelta emango da familian, hazitzen diren sagar desberdinak ikusiz.

Azkeneko bi jarduera hauetarako izena eman beharko da 943 550 575 telefonoaren bidez edo info@sagardoarenlurraldea.com helbidera mezu bat idatziz.

Azkenik, igandea Sagar Uztaren egun handia izango da Foru enparantzan antolatzen den Sagarraren Jaiarekin. Egun horretako programa beste nobedade batekin estreinatuko da. I. Sagardobide Erronka Santiagomendin zeharko sagardotegien arteko errelebo proba batean datza eta irteera 9.00etan izango da. Ondoren, ohiko ekintzak egongo dira: haurrentzako tailerrak eta jolasak, gazta dastaketa gidatua (beharrezkoa da izena ematea), Sagarraren azoka, 2014 uztako lehen muztioaren elaborazioa, Sagar dantza eta kirikoketa, txalaparta eta urteko lehen muztioaren dastaketa, haurrentzako sagargintza proba eta herri bazkaria Gure Izarra elkartean.

Gainera, 10.30etik 12.00etara frontoian lehiaketarako sagar tartak entregatu beharko dira eta VII. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean izen-ematea zabalik egongo da. Bi txapelketa hauetako oinarriak www.sagardoarenlurraldea.com/sa- garuzta helbidean daude.

Cargando comentarios...



Haz tu comentario

[Condiciones de uso](#)

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Noticias de Gipuzkoa se reserva el derecho a eliminarlos.

Escribe tu comentario

introduce tu comentario

ComentariosNúmero de caracteres (500/500)

[Soy usuario registrado](#)

Introduce tus datos.

[Quiero registrarme](#)

